

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Zerga eta tasa hauek kobratzea: landa eta hiri ondasun higiezin gaineko zerga, ezaugarri bereziko ondasun higiezin gaineko zerga, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta zaborra biltzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa, denak 2021ekoak

Jakinarazten dut: azaroaren 1etik azaroaren 30era bitartean ordaindu ahal izango direla borondatezko epean 2021eko honako ordainagiri hauek:

- Landa eta hiri ondasun higiezin gaineko zerga.
- Ezaugarri bereziko ondasun higiezin gaineko zerga.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.
- Zaborra biltzeko zerbitzuaren tasa.

1. Ordaintzeko epea:

Borondatezko aldia: 2021eko urriaren 1etik azaroaren 30era.

Betearazte aldia: 2021eko abenduaren 1etik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak –premiamentu murriztukoak eta premiamentu arruntekoak– ordaindu beharko dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra adierazitako epeetan.

2. Ordaintzeko tokia eta modua:

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa helbideratuta ez daukatenek Kutxabanken, Caja Rural de Navarran edo La Caixa-ren bulegoetan baino ezin izango dute ordaindu, borondatezko aldian.

3. Gomendioak:

Banku helbideratzeetako altak eta bajak, eta gerora jakinarazpenak egiteko helbide aldaketak Arratzua-Ubarrundiako Udalarari jakinarazi behar zaizkio, eta 2022ko ekitaldian aplikatuko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Dura, 2021eko irailaren 28a

Alkatea

MARÍA BLANCA ANTÉPARA URIBE